

Asistentzia Mediko-Farmazeutikoko Aseguru Libreko Entitateen Estatistika

Emaitzen analisia

Aurkibidea

1. SARRERA	2
2. EMAITZEN LABURPENA	3
3. ASEGURATUTAKO BIZTANLEAK	3
4. POLIZA-MODALITATEAK ETA ESTALDURA	5
5. JARDUERA EKONOMIKOA	6
Primen bolumena	7
Batez besteko prima, aseguratu bakoitzeko	8
6. LANGILE-BALIABIDEAK	8
7. ASISTENTZIA-JARDUERA: MEDIKUNTZA ETA OSPITALE ARLOKOA	9
Mediku-kontsultak	9
Ospitaleko asistentzia-jarduera	9

Asistentzia Mediko-Farmazeutikoko Aseguru Libreko Entitateen Estadistika

1. Sarrera

Gure osasun-sistemak aseguramendu pribatua herritarrek osasun-asistentzia bila jotzeko duen beste bide baten gisa hartzen du. Aseguru Libreko Entitateek, osasun-asistentzia emateko duten funtzioari jarraiki, kontratatutako aseguruan finkaturiko asistentzia-prestazioak bermatu egin behar dizkiete haien aseguratuiei, eta osasun-arreta orokorretik (mediku-arreta eta ospitaleratzea) izaera eskusiboa edo osagarria duten beste batzuetara (hortz-asegurua) artekoak izan daitezke prestazio horiek.

Asistentzia Mediko-Farmazeutikoko Aseguru Libreko Entitateen Estadistika (ALE) 2005/2008 Euskal Estatistikaren Sanitate eta Osasun Estatistiketako zati bat da eta 1993. urtetik egiten da. Estadistika horren helburua aseguru-entitate hauek Euskal Autonomia Erkidegoan osasun-asistentzia arloan gauzaturiko jardueraren gaineko informazioa ematea da.

Aseguruaren beste arlo batzuetan bezala, osasun-asistentziako aseguru pribatuaren gaineko analisiak informazioa ematen du aseguraturakoen kopuruaren, poliza-modalitateen, estaldura-motaren, primen bolumenaren eta aseguratu bakoitzaren batez besteko primaren gainean.

Azken hamar urte hauetan (1994-2003), osasun-asistentzia pribatuko aseguru-etxeen negozio-bolumenak, bildutako prima guztien arabera neurtutakoak, %51,5 egin du gora. Aldiz, mediku-asegurua kontratatzea erabaki duen pertsona-kopuruak behera egin du, %12,6, alegia.

Euskal Autonomia Erkidegoaren ehunekoa, Estatuko¹ primen bolumen osoari dagokionez, %4,9koa da, eta osasun-asistentziaren arloan negozio-bolumen handiena duten komunitateen artean bosgarrena; gainera, hirugarrena da aseguraturakoen batez besteko prima handiena duten erkidegoen artean.

Epe horretan aseguratu gehien izan duen poliza-mota bakarkakoa edo familiakoa izan den arren (aseguraturakoen erdia baino gehiago), osasun-asistentziako aseguru kolektiboak nabarmendu dira azken hamarkada honetan, aseguruen merkatuan gero eta garrantzi handiagoa dutelako; gainera, mutualitate publikoak biltzen dituen taldea gainditu dute. 1994. urtean aseguru kolektiboek aseguratu guztien %18,9 biltzen zuten eta 2003an, berriz, %30.

Aseguratu gehienek, %95 baino gehiagok, oraindik nahiago dituzte oraindik asistentzia orokorrean estaldura ematen duten mediku-aseguru pribatuak arreta zehatzeko beste aseguruak baino (esaterako, hortz-asegurua). Aseguraturakoen kopuruak behera egin zuen arren, mediku-kontsultek %7,5eko igoera izan zuten 1994. eta 2003. urteen artean; horren eraginez, aseguratu bakoitzak medikuarengana egiten dituen bisiten batez bestekoak apur bat egin zuen gora; 1994. urtean 3 aldiz joaten ziren medikuarengana eta 2003. urtean, berriz, 3,7 aldiz.

Osasun publikoan gertaturikoaren harian, osasun-aseguruen sektorean osasun-baliabideen erabilerak igoera jarraitua izan duela nabaritu da, baita ospitale-prozesuen iraupena laburtu egin dela ere; ospitale-asistentziak arreta ambulatorioak baino erritmo bizkorragoan egin du gora. Gainera, ospitaleratzeek %32,8ko hazkundera izan zuten 1994-2003 aldian eta, aldiz, egonaldien egun-kopuruak %5,4 egin zuen behera; 1994. urtean 4,5 egunekoa zen batez besteko egonaldia eta 2003. urtean 3,2 egunekoa.

1. Iturria: ICEA (Investigación Cooperativa entre Entidades aseguradoras y fondos de pensiones). El Seguro de Salud. Estadística año 2003. "Datos geográficos por Comunidades y por Provincias: asistencia sanitaria" (laginak)

1. taula: Asistentzia mediko-farmazeutikoko aseguru libreko entitateen aldagai nagusien bilakaera 2002-2003 artean

	Euskal AE			Espainia (*)	
	2003	2002	Δ03/032	2003	Δ03/02
KARTERAEN LABURPENA					
Primak (mila €)	147.946	137.086	7,9	3.062.268	10,2
Aseguratuko prima (€)	485	441	10,0	469	4,9
Aseguratuak	305.356	310.796	-1,8	6.443.827	5,7
Biztanleri aseguruaren (%)	14,9	15,1	-1,3		
Polizak	156.418	158.158	-1,1		
MOTAK (aseguratu-kopuruak)					
Banakakoak edo familiarrakl	158.525	170.578	-7,1	3.081.729	4,7
Kolektiboak	90.806	80.316	13,1	1.280.230	14,3
Mutualitate publikoak	56.025	59.902	-6,5	2.081.868	0,6
ASISTENTZI JARDUERA					
Konsultak (milakoak)	1.145	1.165	-1,7		
Ospitaleratutako pazientek	43.188	40.186	7,5		
Egonaldiak	139.720	147.296	-5,1		
Batez besteko egonaldia	3,2	3,7			
Ebakuntza korurgikoak ospitaleratueta	30.244	29.066	4,1		

Iturria: Eustat

(*) Iturria: 908. txostena, El Seguro de Salud Estadística año 2003, ICEA (Investigación Cooperativa entre Entidades Aseguradoras y Fondo de Pensiones).


2. Emaidzen laburpena

2003. urteko datu nabarmenenak hauexek ditugu:

- %1,8 egin du behera osasun-asistentziako aseguru pribaturen bat kontratatuta duten pertsonen kopuruak.
- Bizkaia da biztanleria aseguruaren proportzio handiena duen lurraldea (%19,6); Araban %13,2koa da eta Gipuzkoan, aldiz, %7,7koa.
- Gora egin du aseguratuaren kopuruak poliza kolektiboen modalitateetan (enpresetara edo beste talde jakin batzuetara zuzendutakoak), %13,1, alegia; aldiz, bakarkako edo familiako aseguruek %-7,1 egin dute behera eta mutualitate publikoek, berriz, %-6,5.
- Aseguratu gehienek (%98,2) osasun-asistentzia orokorreko estaldura duen poliza bat dute harpidetuta.
- Bildutako prima guztien kopurua 148 milioi eurokoa da, 2002. urtean baino %7,9 gehiago; Euskal Autonomia Erkidegoaren BPGren %0,3 osatzen dute.
- Aseguratu bakoitzaren batez besteko primak %10 egin du gora, eta are igoera handiagoa izan da aseguru kolektiboen modalitatean (%14,8).
- Mediku-kontsultek %1,7ko beherakada izan dute, ospitaleratzeek, aldiz, %7,5eko igoera.

3. Aseguratutako biztanleak

ALEetan aseguraturako pertsonak 305.356 izan ziren 2003an, aurreko urtean baino %1,8 gehiago. Kopuru oso horren %70,7 Bizkaiari dagokio, %16,8 Gipuzkoari eta %12,5, berriz, Arabari.


1. grafikoa: Aseguratuen portzentajezko banaketa lurralde historikoen arabera


Iturria: Eustat

Talde honek Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria osoaren %14,9 biltzen du. Lurralde historikoen arabera, proportzio hori %19,6koa da Bizkaian, hori baita osasun-asistentzia arloan aseguratuzeko joera handiena duen lurraldea; Araban %13,2koa da proportzioa eta Gipuzkoak du kopururik txikiena, %7,7.

Azken hamar urte hauetako (1994-2003) joera ikusita, aseguratuen kopuruak beherakada jarraitua izan du: 1994. urtean 349.512 ziren eta 2003an, berriz, 305.356; beraz, aseguratutako biztanleriaren ehunekoa ere murriztu zen: 1994. urtean %16,6koa zen eta 2003an, aldiz, %14,9koa.

Garapen berdina izan da hiru lurraldeetan, baina, hala ere, Gipuzkoan nabarmenagoa da, aseguratuen kopuruaren beherakada %25,1ekoa izan baitzen 1994 eta 2003 urteen artean; aldiz, Bizkaian eta Araban %10,4koa eta %4,8koa izan zen hurrenez hurren.


2. grafikoa: Aseguratuen kopuruaren bilakaera lurralde historikoen arabera. 1994-2003


Iturria: Eustat

4. Poliza-modalitateak eta estaldura

Bakarkako edo familiako polizen modalitateak biltzen du aseguratuen kopururik handiena, %51,9; ondoren, enpresetara edo beste talde jakin batzuetara zuzendutako polizak (%29,7) eta mutualitate publikoak (%18,3) daude. Estatuko egoera desberdina da, baina bakarkako edo familiako modalitatea da gehien kontratatzen dena (%47,8); bestalde, mutualitate publikoetako polizarekin aseguratutako taldeak (%32,3) garrantzi handiagoa du poliza kolektiboak baino (%19,9). Euskal Autonomia Erkidegoan antzeko egoera zegoen azken hamarkadaren lehen urteetan.

3. grafikoa: Aseguratuen portzentajezko banaketa, poliza-motaren arabera




Iturria: Eustat
 Iturria: ICEA

Aurreko urtearekin alderatuta, bakarkako edo familiako modalitateak izan zuen aseguru-galera handiena (-%7,1); mutualitate publikoek, berriz, %-6,5 egin zuten behera. Aldiz, aseguru kolektiboek (enpresetara edo beste talde jakin batzuetara zuzendutakoak) %13,1eko hazkundera izan zuten. Aipatzekoa da hori dela azken hamar urte hauetan aseguru-kopuruan hazkundera izan zuen modalitate bakarra (%37,3 gehiago); 1994. urtean baino 24.657 aseguru gehiago izan ziren.

Estatuan ere aseguru kolektiboa da aseguratuen kopuruan hazkunde proportzional handiena izan duen modalitatea (%14,3); bakarkako aseguruetan %4,7koa izan da hazkundera eta administrazio publikoan, aldiz, %0,6koa.

Lurraldeei dagokienez, guztietan aseguru gehienek bakarkako edo familiako polizaren bat dute kontratatuta; aldiz, beste modalitateei dagokienez, aseguru kolektiboek indar handiagoa dute Bizkaian, (%38,1) Araban eta Gipuzkoan baino; azken bi lurralde horietan mutualitate publikoetan aseguratutakoen kopuruak beste poliza kolektibo batzuetan aseguratutakoena gainditzen du.

4. grafikoa: Aseguratuen portzentajezko banaketa, poliza-motari jarraiki, lurralde historikoen arabera




Iturria: Eustat

Kontratututako polizen estaldura-motari dagokionez, nabarmentzekoa da aseguraturako biztanleriaren gehiengoak, %98,2k, osasun-asistentzia orokorreko polizak aukeratu zituela eta %1,8k soilik kontratatu zituela arreta zehatzagoko polizak. Azken horietan daude bilduta, batetik, hortz-asegurua (%0,7), bai poliza independente gisa (%0,3), bai osasun-asistentzia nagusiko asegurua osagarri moduan (%0,4), eta, bestetik, osasun-prestazio zehatzak barneratzen dituzten polizak (%1,1).

5. Jarduera ekonomikoa

Osasun-asistentziako aseguru librearen sektorearen gastu osoa 148 milioikoa izan zen Euskal Autonomia Erkidegoan 2003. urtean. Gastu horretatik, medikuntza eta erizaintza arloetako langileen ordainsarien ordainketak izan zuen zenbatekorik handiena, %43,3. Bestalde, zenbateko horretatik nabarmentzekoa da arreta espezializatuko medikuntzako langileei dagokiena, partidaren %85,1, alegia. Jarraian, ospitaleratze-gastuak daude (zenbateko osoaren %31,4) eta gelditzen den kopurua beste diagnosi-zerbitzu kliniko batzuen (analisi klinikoak, erradiologia eta beste azterketa-mota batzuk), kudeaketa-gastuen eta beste zenbait gastuen artean dago banatuta.

5. grafikoa: Osasun-asistentziako aseguruaen jarduera-gastuaren banaketa, kontzeptuka



Iturria: Eustat

Iturria: ICEA

Bestalde, osasun-asistentziako aseguruaren sektoreko diru-sarrera osoa 156 milioi eurokoa izan zen. Zenbateko hori, ia oso-osorik (%94,5), primetatik jasotako diru-sarrereri dagokie eta gainerako %5,5etik %3,6 partekatutako ordainketatik jasotako diru-sarrereri dagokie, %1 finantza arloko diru-sarrereri eta %0,8, berriz, beste diru-sarrera mota batzuei.

Primen bolumena

Osasun-asistentziako aseguruaren sektorean, 2003. urtean, guztira 148 milioi euroko sariak bildu ziren, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko BPGaren %0,3a. 2002. urtearen aldean sari kopurua %7,9 gehitu zen; hala ere, hazkunde hori Estatukoa (%10,20) baino txikiagoa izan zen.

ICEAk² osasun-asistentziaren arloko primen bolumenari eta ehunekoari buruz, autonomia erkidegoka eta zenbateko nazional osoaren arabera, egindako txostenak dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoa primen bolumen handiena duten erkidegoen artean bosgarrena da (%4,9ko bolumena). Aurretik ditu Madril (%23,9), Katalunia (%21,8), Andaluzia (%14,2) eta Valentzia (%8,2).


Primen zenbateko osoak modalitateen arabera duen banaketari dagokionez, bakarkako edo familiako polizek primen zenbateko osoaren %51,5 osatzen dute, kolektiboek %30 eta mutualitate publikoek, berriz, %18,5.

Bestalde, azken hamar urte hauetan (1994-2003) azpimarratzekoa da osasun-asistentziaren arloko aseguru kolektiboaren merkatu-kuotaren hazkunde mailakatua. Izan ere, 1994. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko primen bolumen osoaren %14 biltzen zuten eta 2003. urtean, berriz, %30.

Estatu mailan, bakarkako modalitateak garrantzi handia du primen zenbateko osoan (%54,1) eta Euskal Autonomia Erkidegotik hurbil dabil; alabaina, badaude aldeak, esaterako, administrazio publikoaren modalitateak (%31,9) aseguru kolektiboak (%12,7) baina garrantzi handiagoa dauka.

1994-2003 denbora tarteari dagokionez, prezio iraunkorretan neurtutako primen bolumenak %15,6ko hazkundera izan zuen; aldiz, Estatuan, denbora tarte berean, garapena handiagoa izan zen, %57,7ko hazkundera izan baitzen.

6. grafikoa: Primen bolumenaren hazkunderaren bilakaera (euro finkoak 1994)



Iturria: Eustat
 Iturria: Estatu

2. Iturria: ICEA (Investigación Cooperativa entre Entidades aseguradoras y fondos de pensiones). El seguro de Salud. Estadística año 2003. "Datos geográficos por Comunidades y por Provincias: asistencia sanitaria" (laginak)

Batez besteko prima, aseguratuko bakoitzeko

Euskal Autonomia Erkidego osoaren batez besteko prima 485 eurokoa izan zen aseguratuko bakoitzeko, Estatuan, berriz, txikiagoa izan zen (469 euro). Horren eraginez, 2002. urtearekin alderatuta, %10eko hazkundea izan zen. Hazkunde hori poliza-modalitate guztietan nabaritu zen; alabaina, nabarmenena poliza kolektiboetan izan zen (%14,8). Mutualitate publikoetan, berriz, %11,4ko hazkundea izan zen eta bakarkakoetan edo familiakoetan %6,9koa.

Lurraldeei dagokienez, Gipuzkoak izan zuen urteko batez besteko primarik handiena, 507 eurokoa. Bizkaikoa 496 eurokoa izan zen eta Araba izan zen, 392 euroko batez besteko primarekin, Estatuko batez bestekoa baino zenbatero txikiagoa zuen lurralde bakarra (469).

ICEAk³ emandako datuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko aseguratuen batez besteko prima beste autonomia erkidego batzuetakoekin alderatzen badugu, primarik handiena duten hiru erkidegoetako bat da gurea. Balearrek eta Madrilek soilik gainditu dute EAeko batez besteko prima.


6. Langile-baliabideak

Osasun arloko Aseguru Libre Pribatuko Entitatek 7.902 profesional jarri zituzten 2003. urtean haien aseguratuen eskura. Langile horietatik 7.737 osasun-prestakuntza zuten langileak ziren eta gainerako 165ak, berriz, osasun arlokoak ez ziren langileak ziren.

Osasun-langileen artean nabarmentzekoa da lehen mailako arretarako izan den medikuntza orokorreko 1.252 medikuko eta 325 pediatriko taldea, baita arreta espezializatuko 5.478 espezialisten taldea ere. Arlo horretan, odontologia, tokoginekologia, traumatologia eta oftalmologia izan ziren langile-kopuru handiena jarri zuten espezialitateak.

Osasun-langileen arteko ordainsari-modalitate zabalena ekintza-medikuko ordainketa izan zen, kasuen %94,3. Aldiz, %5,6 ordainketa kapitatioari zegokion (hau da, langileari dagozkion aseguratuen kopuruaren araberrako ordainketari).

7. grafikoa: Entitate aseguratzaileetako langileei ordaintzeko moduak



Iturria: Eustat

3. Iturria: ICEA (Investigación Cooperativa entre Entidades aseguradoras y fondos de pensiones). El seguro de Salud. Estadística año 2003. "Datos geográficos por Comunidades y por Provincias: asistencia sanitaria" (laginak)


7. Asistentzia-jarduera: medikuntza eta ospitale arlokoa

Mediku-kontsultak

AL Eetan aseguratutako biztanleriaren 1.145.101 kontsultari eman zitzaizen zerbitzua (2002. urtean baino %1,7 baino gutxiago), beraz, 3,7 kontsulta aseguru bakoitzeko. Gainera, aseguratuek gehien baliatu zuen espezialitatea traumatologia izan zen (100 aseguru bakoitzeko 46 kontsultako batezbestekoarekin); espezialitate haren atzetik daude pediatria, tokoginekologia eta oftalmologia, eta hiru kasuetako batezbesteko bera izan zen (40 kontsulta inguru 100 aseguru bakoitzeko).

2002. urtearekin alderatuta, mediku-kontsulten hazkunde handiena izan zuten jarduerak psikiatria (%17,6), dermatologia (%9,8) eta errehabilitazio (%5,2) arlokoak izan ziren. Nabarmenezkoa da, halaber, erizaintzako kontsultek izandako hazkundera (%9,9). Arlo hori, bestalde, laukoiztu egin da azken hamar urteetan: 1994. urtean 3.219 izan ziren eta 2003. urtean, berriz, 14.215.

8. grafikoa: Kontsultak entitate aseguratzaileetan, espezialitateen arabera



Iturria: Eustat


Azkenik, azpimarratzekoa da Euskal Autonomia Erkidegoan Aseguru Libreko Entitateen bidez bideraturiko lehen kontsulten eta ondorengo kontsulten arteko loturak 0,85ko balioa izan zuela, hau da, lehen kontsultak ondorengo kontsultak baino gehiago izan ziren, %15 gehiago, alegia.

Ospitaleko asistentzia-jarduera

Ospitalean emandako laguntza %7,5 gehitu zen. Mediku-aseguratzailleetatik etorritako gaixoen artean 43.188 ospitaleratu egin ziren.

Gainera, aseguru-etxe pribatuetako pazienteen artean 139.720 egonaldi izan ziren, aurreko urtean baino %5,1 gutxiago. Bestalde, kirurgia orokorra, traumatologia, ginekologia eta oftalmologia izan ziren ospitaleratze-kopuru handiena eragin zutenak; aldiz, egonaldi gehien eragin zutenak barne-medikuntza eta psikiatria izan ziren, arestian aipatu kirurgia orokorrek, traumatologiarekin eta ginekologiarekin batera.

9. grafikoa: Aseguru entitateetatik datozen pazienteen ospitale-egonaldiak, motaren arabera



Iturria: Eustat

Ebakuntza kirurgiko guztietatik 30.244 ospitaleratuta egin ziren; beraz, aseguru-etxe medikuen erregimenean ospitaleratutako pertsona-taldearen %70i, gutxi gorabehera, ebakuntzaren bat egin zioten. Gainerako ebakuntzak, 11.555, ospitaleratzeko beharizanik gabe egin ziren, hau da, egunez egin ziren ospitalean eta anbulatorio bidez.

Larrialdietako arretari dagokionez, ospitaleetan bideraturiko larrialdien artean Aseguru Libreko Entitateen bidez ordaindutakoak 9.275 izan ziren 2003. urtean; horietatik %2,4k soilik sortu zuten ospitaleratzaren bat.